

LAGUNTZETARAKO DEIALDIA, 2010. URTEAN IZAERA ZIENTIFIKOKO BILTZARRAK, JARDUNALDIAK, MINTEGIAK ETA BILERAK ANTOLATZEKO

347/2010 Ebazpenaren eranskina

Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikerketa bultzatu eta sustatzeko politikaren barruan, beharrezkoa ikusi da gure Unibertsitatearen presentzia sustatzea ezagupen zientifiko aurreratuenei buruzko informazio trukaketa eta hedapena sustatzen duten jardueretan. Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatu beharreko izaera zientifikoko biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak eta bilerak antolatzekeo laguntzan gauzatzen da, duela urte batzuetatik egiten den berriazko deialdi baten bidez.

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da ezagupen zientifiko aurreratuenei buruzko informazio trukaketa eta hedapena sustatzea, izaera zientifikoko bilkurak antolatuz. Zehazki, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2010. urtean antolatzen diren zientzia biltzarrak eta izaera zientifikoko komunikazioak hautatzeko irizpideek arautzen dituzten bestelako ekimenak antolatzea.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira irakaskuntza izaerako bilkurak eta parte-hartze mugatuko mintegiak egiteko laguntzak.

2.- ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA

Deialdi honetako laguntzak eskatzen ahalko dituzte Nafarroako Unibertsitate Publikoan erroldaturiko Ikerketa Taldeek, izaera zientifikoko azterlanak eta ikerketak hedatzeko, eztabaidatzeko edo trukatzeko xedez, biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak eta izaera zientifikoko bilerak antolatzekeo eta egiteko helburua badute. Eskabideak Ikerketa Taldeko Arduradunak sinatuta egon beharko dira.

Deialdi honen bidez finantzatuak izan daitezkeen ekitaldiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren campusean, edo, bestela, Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldean egin beharko dira, ahal dela. Soilik salbuespen gisa, eta Ikerketa Batzordeak proposaturik, eman ahalko dira laguntzak beste lurralde eremu batzuetan egiten diren biltzar, jardunaldi eta abarretarako.

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, INIAk edo Nafarroako Gobernuak kudeaturiko deialdietan parte hartzen duten eskatzaileek, kontuan izan behar dute deialdi bakoitzaren gastuak justifikatzeko eskakizunak bete beharko dituztela, ordainketak modu egokian egin daitezzen eta, edonola ere, irizpide bera izan beharko dutela ekitaldi bererako, Unibertsitatearen izenean diren ordainagirien gastuak izan, edo beste erakunde bati emandako diru-laguntzak izan. Nolanahi ere, aipatzekoa da MICINNen eta INIAren ekintza osagarrien sailean ematen diren laguntzak unibertsitateek beraiek kudeatzen duten ekitaldien antolamendu gastuak ordaintzen dituztela, eta ez dituztela zientzia elkarteetan eta nazioarteko zein nazioarteko beste erakunde batzuen gastuak ordaintzen.

3.- DOKUMENTAZIOA

3.1. Laguntza eskaerarekin batera, aurkeztu beharko da egin nahi den ekintzaren zientzia-programa, eta zehaztu zein urte eta egunetan egingo den eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, behar bezala xehatua.

3.2. Gastuen aurrekontuan gastu guztien zerrenda adierazi beharko da, zein urtetan egingo diren zehaztuta. Hona hemen adibide batzuk:

- Komunikabideetan iragarkiak jartzeko eta liburuxkak edo hedapenerako txartelak egiteko gastuak.
- Erreprografia gastuak.
- Ikus-entzunezko instalazioak eta bitartekoak alokatzeko gastuak.
- Ekintza antolatzen erator daitezkeen bestelako gastuak (gonbidaturiko hizlariari ordaintzeko, bidaietarako gastuak, etab.).

Ez dira gastutzat onartuko biltzarra antolatzen dutenei ordainketak egiteko gastuak, ezta protokolo gastuak ere, esaterako, ekitaldiaren hasierako edo amaierako afariak zein bazkariak, etab. Hizlarien ordainketei dagokienez, deialdi honen barnean, gastu horiek, gonbidatutako hizlarien kasuan soilik onartuko dira gastutzat. Horrelako kasuetan, Unibertsitatearen beraren arauetan eta lege indardunetan mantenurako eta egoitzarako ezarritako mugak errespetatuko dira.

3.3. Diru-sarreraren aurrekontuan honako hau adierazi beharko da gutxienez:

- Bertaratuek izena emateko eman beharreko kopurua, banaka eta guztira. Kasu horretan, aurreikusten diren parte-hartzaile kopurua adieraziko da.
- Unibertsitateak kanpoko zenbateko finantzabidea dagoen. Jarduera diruz lagunduko edo finantzatuko duen erakundearen, organismoaren edo enpresaren idazkia erantsi beharko da, non kostu horri erantzuteko konpromisoa ziurtatuko baita.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2010eko apirilaren 30eko 14:30ean bukatzen da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira.

5.- LAGUNTZEN KOPURUA

5.1. Deialdi honetako laguntzek Unibertsitateak 2010eko ekitaldirako duen aurrekontuak ezarritako mugak izango dituzte.

5.2. Emandako laguntzak soilik erabiliko dira 2010. urtean egindako gastuak ordaintzeko.

5.3. Laguntza bakoitzaren zenbatekoa, gehienez ere honako hau izango da:

- 3.900 euro nazio mailako jardueretarako
- 7.800 euro nazioarteko jardueretarako

Nazioarteko jardueratzat hartuko da gutxienez 3 herrialdeko komunitate zientifikoari eragiten diona.

5.4. Eskatutako laguntzak inolaz ere ez du gaindituko dagokion jarduera antolatzeko aurrekontu osoaren herena, onartzen ez diren gastuak kanpoan utzita.

5.5. Ezinbesteko baldintza da egiten den biltzarraren, bileraren eta abarren finantzabidea bertaratzen direnen izena emateko kuotatik egitea nagusiki, Nafarroako Unibertsitate Publikoa ez den eta biltzarrak edo bilerak finantzatzeko xedea duten beste erakunde eta enpresa batzuen ekarpenekin batera.

6.- EBALUAZIOA

Ikerketa Batzordeak aurkezten diren laguntzetarako eskaerak aztertuko ditu, honako irizpideen arabera:

- Biltzarrean, jardunaldian eta mintegian aztertu beharreko gaiaren interesa, kalitatea eta lehentasuna.
- Bertaratutako kopurua eta gonbidatutako hizlarien kopurua.
- Gonbidatutako hizlarien ibilbide zientifiko teknikoa.
- Hitzaldiak hautatzeko eta ebaluatzeko prozedura.
- Aurrekontu teknikoaren eta antolamendukoaren egokitzapena.
- Autofinantzabidearen maila, izena emateko kuoten eta bestelako finantzabide gehigarrien bidez.

Ikerketa Batzordeak laguntzak emateko proposamena egingo du kasuan kasuan, aipatu ebaluazio irizpideen arabera, eta aurreko artikuluan ezarritako kopuruaren mugarekin, eta aurrekontuan dagoen kopuru osoaren mugarekin bat.

7.- LAGUNTZEN ESLEIPENA ETA EBAZPENA

1. Errektoreak, Ikerketa Batzordeak proposatuta, deialdi honetako laguntzak esleitzeko ebazpena emango du, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik bi hilabeteko epean, gehienez ere.

2. 2010eko apirilaren 30a baino lehen aurkeztutako eskabideak ebatzi ondoren, eskabideak aurkezteko epea luzatzen ahalko da, Ikerketa Batzordeak aurretik erabakia hartuta. Emateko ebazpen berean azalduko da zabaltzen dela.

3. Deialdi honetako laguntzak esleitzeko eta ukatzeko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, erabakia hartzen denetik bi hilabeteko epean, gehienez ere. Ebazpen honen aurka, interesdunak, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez dezake errektorearen aurrean hilabeteko epean, edo, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, maila bereko Nafarroako Auzitegietan bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

8.- LAGUNTZEN ORDAINKETA

1. Hirugarren entitate bat (elkarte zientifikoak, nazioko zein nazioarteko erakundeak) ordeztuz, ekitaldiak egiteko finantzabidea ematearen kasuan, Kontabilitate Atalak zuzenean ordainduko du esleitutako laguntza. Zenbateko hori ezin izango da beste ikerketa proiektu batzuekin konpentsatu. Hasiera batean, ordainketa bat egingo da,

emandako laguntzaren % 75koa gehienez ere. Laguntzaren gainerakoa ordaintzeko, Ikerketa Zerbitzuan aurkeztu beharko da gastu guztiei dagokien dokumentazioa.

2. Laguntza emateak, hirugarren entitate bat ordeztuz egiten diren ekitaldiak salbu, berarekin ekarriko du esleitzeko ebazpenean baimentzen den kopuruaren gastuak Unibertsitateak zuzenean bere gain hartzea. Kontuan hartu beharko da gastu hauen BEZak ez duela ekitaldi bakoitzerako ematen den laguntza murrizten. Laguntza hauen onuradunak Unibertsitateko Kontabilitate Atalarekin harremanean jarri beharko dira, dagokien diru-sarrerak egiteko kontu zenbakiak hartzeko. Ekitalditik sortzen diren diru-sarrerak Nafarroako Unibertsitate Publikoko aurrekontuari egotziko zaizkio. Emandako laguntza jasotzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izenean egindako ordainagiri jatorrizkoak, jardueraren antolatzaileak oniritzia emanda dutenak, aurkeztu beharko dira alde aurretik Ikerketa Zerbitzuan. Ikerketa Zerbitzuak, gastuak laguntzaren xedearekin bat datozela egiaztatu ondoren, Kontabilitate Atalera igorriko du ordaintzeko agindua, jatorrizko ordainagiriekin batera.

3. Abenduaren 10erako gastuen ordainagiriak aurkeztu ez badira, deialdi honen babesean finantzatu nahi diren ekitaldiak ezin izango dira bideratu 2011. urteko aurrekontuan.

4. Ordainagiri guztiak Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuko dira, Unibertsitateko Araudiarekin bat, eta laguntza ematen dela jakinarazten denean adierazitako inprimakiak erabilita.

5. Biltzarra finantzatzeko erdietsitako diru-sarrerak, sortutako gastuak baino handiagoak badira, Nafarroako Unibertsitate Publikoak soilik hartuko ditu bere gain alde horren egiazko zenbatekoa ordaintzeko gastuak, eta jarduera horretatik ezin izango da soberakinen poltsa bat sortu, erabili ez den diru-laguntzaren zenbatekoarekin.

9.- ESLEIPEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

9.1. Ikerketa Zerbitzuan aurkeztu beharko dira jarduera gauzatu delako ziurtagiriak eta jatorrizko ordainagiriak, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izenean, 8.1 atalean xadaturiko kasuak salbu, Unibertsitateko jardueraren antolatzailearen oniritziarekin.

9.2. Biltzar, bilera, mintegi eta abarrei buruz argitaratzen den dokumentazio guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren marka grafikoa izan beharko du.

9.3. Unibertsitateak 2010. urterako aurrekontua betetzeko arauetan adierazten den eguna baino lehen, Ikerketa Zerbitzura igorri beharko da egindako diru-sarriren eta gastuen likidazioa.

9.4. Laguntza hauetarako eskabidea aurkezteak berarekin dakar deialdi honetan ezarritako oinarriak onartzea.

9.5 Deialdi honetako oinarriak ez betetzeak, emandako laguntza itzuli behar izatea ekar dezake.

10.- ARGITARATZEA

Deialdi honetan azaltzen diren oinarriak Unibertsitatearen komunikabide elektronikoen bidez hedatuko dira. Ikerketarako Errektoreordetza arduratuko da zabalkundeaz.

11.- ERREKURTSOAK

Ebazpen honen eta deialdi honetako oinarrien aurka, aukeran, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke errektorearen aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.